Urteko bigarren zor-jaulkipena, Benetan 2025-2027 Plan Estrategikoan aurreikusitako hazkundeari erantzuten jarraitzeko

Kutxabankek 750 milioi euro ezarri ditu hipoteka-zeduletan 7 urterako

Kalitate oso altuko inbertitzaileek babesten dute, batez ere nazioartekoak (guztien %88)

Eskaria 1.800 milioi eurora iritsi da , eta, horri esker, 6 pbs prezioa 29 pbs-raino jaitsi da, irteerako prezioarekin alderatuta (35 pbs)

2026.09.09 Kutxabankek 750 miloi euro ezarri ditu gaur hipoteka-zeduletan, 7 urteko epemuga finkoarekin. Eskaria 1.800 milioi eurora iritsi da , eta, horri esker, 6 pbs prezioa 29 pbs-raino jaitsi da, irteerako prezioarekin alderatuta (35 pbs).

Zor-jaulkipena —urteko bigarrena eta 2015az geroztik hipoteka-zeduletan egindako lehenengoa— bankuak Benetan 2025-2027 Plan Estrategikoan aurreikusitako hazkundeari erantzuteko darabilen estrategiaren barruan sartzen da.

Eskariak granularitate handia izan du —60 inbertitzailerainokoa—, eta nazioko eta nazioarteko inbertitzaileek —guztizkoaren % 88— osatutako banaketa geografikoa izan du: Alemania (% 25), Benelux (% 21), Erresuma Batua eta Irlanda (% 20), Eskandinaviarrak (% 17), Frantzia (% 3) eta Portugal (% 2).

Moody’s eta DBRS nazioarteko agentziek Aaa eta AAA kalifikazioak eman dizkiote, hurrenez hurren, eragiketari.

BBVA, Commerzbank, HSBC Continental Europe, J.P. Morgan, Kutxabank Investment eta Natixis taldeek izan dute kokatzearen ardura.

Ekainean, erakundeak 500 milioi euroko kalitate handiko lehentasunezko zor senior ‘berdea’ ezarri zuen (senior A kalifikazioarekin), 6 urteko amortizazio-epearekin (bosgarren urtean amortizazioa aurreratzeko aukerarekin) eta 2,6x-ko gainharpidetzarekin, 1.300 milioi euroak gainditu arte.